

santakrutzak • Lezo



INAKI JUAREZ

Jousilouli taldekoen abestiak entzuteko aukera izango da, besteak beste, gaur gaueko kontzertuan.

Asteburu luzea

Astelehenean jaiak amaituko dira; ordura arte ekitaldi ugari izango dira

Eneka Katelin | LEZO

Lezoko jaiak aurrera doaz, eta gaurko egitaraua gainezka dago. Goizeko 09:00etan jendaurreko IX. Santakrutz Margo Sariketa hasiko da, eta, ordu erdi beranduago, Urantzu taldeko dultzaineroek dianarekin esnatuko dituzte oraindik lo daudenak.

Kiroldegian III. Marmitako Txapelketa hasiko da 11:00etan, Aiton Borda, Allerru, Ixkulineta Tiñelu elkarteek antolatuta; hegaluzearen usain goxoa kaleetan barrena barreiatuko da. Parte hartuko duten pertsona eta elkarteek hogeituroko prestatu beharko dituzte; antolatzaileen eskutan utzi, eta epaimahaira eramango dituzte. Epaimahaia sukaldari adituez osatua egongo da.

11:30ean Ixerka! txotxongilo eta ipuin taldeak *Oarsoaldeko musikariak* ipuina antzeztuko du Polentzarrenen. Ordu erdi beranduago, berriz, Allerru Ehi-za taldearen lokala inauguratu-ko dute; bedeinkapena, dantzariak, suziriak eta hamaiketakoak egongo dira.

Bestalde, 12:30ak aldera herri kirolak izango dira Gurutze Santuaren plazan.

Aizkolari eta harri-jasotzaile artean

Aizkolariak Joxemari Olasagasti gipuzkoarra eta Donato Larretxea nafarra izango dira, eta 8 enbor ebakiko dituzte. Harri-jasotzaileak, berriz, Jose Ramon Iruretagoiena eta Jose

Agustin Arruti izango dira; Iru-retagoienak 150 kiloko errektangeluarrarekin egingo du saioa, eta Arrutik 200 kiloko errektangeluarrarekin. Amaitzeko, harri-jasotzaileen erakustaldia egongo da.

Ondoren, 14:30 aldera, herri bazkaria izango da kiroldegian, eta baita dantzaldia ere. Beranduxeago, laurak aldera, Lezoko txirrindulari txapelketa abiatu-

ko da Gurutze Santuaren plaza-tik. Kategoriak 6-8 urte, 8-10 urte, 10-12 urte eta 12-14 urte bitartekoak izango dira, eta ize-na ematea beharrezkoa da.

Tiñelu elkartearen Truk Txapelketa egingo da 16:30ean, eta, ordu erdi beranduago, Josetxo Etxandi XXVII. Oroimenezko pilota partiden finalak izango dira, hiru kategoriatan: gazteak, maila irekia eta lehen

EGITARAUA

GAUR

09:00: Jendaurreko IX. Santakrutz Margo Sariketa hasiera.
09:30: Urantzu dultzaineroen diana.
10:30: Buruhandien kalejira txistulariekin.
11:00: Meza nagusia.
11:00: Marmitako txapelketaren hasiera kiroldegian.
11:30: Ixerka! txotxongilo eta ipuin taldeak *Oarsoaldeko musikariak* ipuina antzeztuko du Polentzarrenen.
12:00: Allerru ehiza taldearen lokala inaugurazioa.
12:30: Herri kirolak Gurutze Santuaren plazan.
14:30: Herri bazkaria kiroldegian.
16:00: Lezoko itzulia txirrindulari txapelketa.
16:30: Truk txapelketa.
17:00: Josetxo Etxandi XXVII. Oroimenezko pilota partiden finalak.
17:00: Herri kirolak eta eskulan tailerrak haurrentzat Saldise plazan.
18:00: Jendaurreko IX. Santakrutz Margo Sariketa eta kartel lehiaketa.
19:00: DJ festa Zabarre-lekun.
19:00: Gazte poteoa Zabarre-lekutik hasita. Jarraian bertsolariak eta tinbaleroak.
19:00: Lezo, Oiarzun eta Pasaiko erraldoien topaketa eta kalejira.
21:30: Herri afaria Tiñelun. Rock kontzertua Zabarre lekun: Desoreka, Eraso eta Jousilouli. Ondoren, DJak goizaldera arte.
23:00: Dantzaldia plazan Laiotz taldearekin.

MUSIKA

Desoreka, Eraso eta Jousilouli taldeekin rock kontzertu handia izango da gaur gauean

ta dago antolatuta, eta jarraian gazte poteoa hasiko da. Ondoren, bertsolariak eta tinbaleroak daude aurreikusita. Bitartean, ordu berean, Lezo, Oiarzun eta Pasaiko erraldoien topaketa eta kalejira abiatuko da kiroldegitik, txistulari eta dultzaineroek lagunduta.

Hamaika aukera gauean

Hainbeste ekitaldirekin, honez gero gehienok tripa gosez orroka izango dugu, eta tripa zorriak hiltzeko parada Tiñelu elkarteak eskainiko du, izan ere, herri afaria antolatu du 21:30ean.

Gau osoan, ongi pasatzeko hainbat aukera izango dira. Alde batetik berbena izango da plazan Laiotz taldearekin, eta Zabarre-lekuan, berriz, rock kontzertu bikaina izango da Desoreka, Eraso eta Jousilouli taldeekin.

Gainera, Txerrimuño gazte-txean Jaizkibel mendiaren magalean ezarri nahi duten Superportuaren aurkako eta inguruan ezarri nahi dituzten beste proiektuen aurkako festa egongo da gau osoan. Bukatzeko, Zabarre-lekuan kontzertua amaitu ondoren, DJ festa izango da goizaldera arte jendea dantzan jartzeko asmoz.

mailako zaleak. Ordu berean, haurrentzako eskulan tailerrak eta herri kirolak izango dira Saldise plazan.

Arratsaldeko seietan, jendaurreko IX. Santakrutz Margo Sariketa eta kartel lehiaketaren sari banaketa izango dira. Lan horiek Alondigan ikusgai izango dira jaietan.


Zabarre-lekuari dagokionez, arratsaldeko zazpitan DJ fes-




HORNIDURA ELEKTRIKOAK / SUMINISTROS ELECTRICOS

FESTETAN ARGIBILI !

Plaza Lopene, n.º5 - 20100 LEZO (GIPUZKOA)
 Tel: 943 51 21 01 - 943 34 45 76 - Faxa: 943 51 21 01
 E-mail: argibat@euskalnet.net

INSTALACIONES
BERASARTE S.L.

GASA ETA BEROGAILUEN INSTALAZIOAK
 PROIEKTU ETA IKERKETA TEKNIKOAK
 BERTAKO INGENIARITZA



Lopene plaza, 2 beheka - Tel: 943 511 182 - 670 441 657 - 20100 LEZO





MARTIN IRIONDO

ESPEZIALITATEAK:

- Lakatu naturalak
- Tindatuak
- Koloretako lakatuak, zuria, marfila, beltza eta abar
- Bernizak kanpoalderako, lehioetarako eta kontraleihoetarako
- Zureria lakatua txukuntzeko lanak
- Eskuz egindako zur eta horma lanak
- Zahartzeak
- Marrazkiak, Hormetako pintura eta abar...
- Imitazioak, harria, marmola, brontzea eta abar

108 pol. ITURRIN eraikina - 37 lokala - 2.B
 Tel.: 943 49 13 55 - Faxa: 943 49 30 89 - 20100 LEZO (Gipuzkoa)

Lezoko
Unibertsitateko
Udala

Jai zorientsuak opa dizkizuegu lezotar guztioi, baita kanpotik hurbiltzen zaretenoi ere. Aldi berean Besarkada handi bat gure preso eta errefuxiatuei.